



Globalizazioaren pitzadura

Azken hiru hamarkadetan eza-gutu dugun Ameriketako Estatu Batuen (AEB) lidergopeko globalizazioaren aroa zalan-tzan dago. Nazio interesen gainetik ordenu global liberala lehenesten duen globalizazioa ahitzearen atzean faktore eta arrazoi ugari daude. Hiperglobalizazioaren atzerako zantzuak 2008ko finantza krisiarekin antzematen hasi ziren. Kanpoko merkatuetako bere presentzia ahaztu gabe, barne eskariaren hazkundeari esker barneko merkaturak birzentratzen hasi zen Txina orain hamar urte. Bestalde, azken urteetako Estatu Batuetako kanpo merkataritzaren motelaldia aipagarria da. Atzerriko inbertsioak ere 2008ko krisiaren ostean izoztu egin ziren eta azken bost urteetan atzera egin dute.

Produktzio lerroak nazioartean banatzen dituzten mundu mailako balio kateak ahultzen ari dira produktio kate osoa kontrolatzeko zailtasunak handitzen doazen neurrian. Honi gaineratu behar zaio pandemiak eragindako talkak munduko balio kateetako osaketa berria sustatzen duela, lurraldearteko birbanaketa eta nazioarteko garraioaren zailtasunak oinarri hartuta. Larrialdi klimatikoari eman beharreko erantzunak ere orain arte munduko produktio kateen eraldaketan eragina izango du

Txinaren nazioarteko posizioa hobetzeko ahaleginak oztopatzea da politika berri honen xedea

etorkizun hurbilean. Beraz, produktio-gintzan aspaldian agintzen zuen muturreko globalizazioaren logika aldatzen ari da eta etxerako edo hurbileko herrialdeetako bidea jorratzen ari da hein handi batean.

Globalizazio neoliberalaren gehiegikeriek arlo politikoan populismoen igoera ekarri dute eta arlo ekonomikoan Estatuaren itzulera, hala nola berrindustrializazioarekin, nazio subiranotasuna indartzearekin –erdieroaleen, baterien edo botiken sektoreko industri politikak adibidez–, politika sozial, energetiko eta ingurugiro politikak sustatzearekin.

Dena den, globalizazioaren itxura aldatetarako arrazoi ekonomikoek ez ezik irizpide geopolitikoek ere garrantzia nabarmena dute. 2018 urtean AEBetako lehendakariordeak, Mike Pencek, gaur egun Errusiarekin gauzatzen ari den baina Txina helburu duen uztargabetzea-



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

ren aldeko aldarria egin zuen. Txinaren nazioarteko posizioa hobetzeko ahaleginak oztopatzea da politika berri honen xedea. Uztargabetzea ekonomian, teknologian, ezagutzan eta arlo politikoan sustatu nahi dute. Horretarako, ziurtasunaren eta bere sistema politikoaren izaera antiliberalaren argudioak erabiltzen ditu Ipar Amerikako herrialdeak Mendebaleko herrialdeen elkartasuna erakartzeko eta nazioartean bere posizio hegemonikoa indartu eta finkatzeko.

Txina, bere aldetik, bere kanpo estrategiaren norabidea aldatzen ari da. Mendebaleko herriekin lankidetzara erabat apurtu gabe Hegoa-Hegoa ardatza indartze bidean dabil gero eta gehiago. Ardatz alternatibo honetan Txinak bere ekarpena arlo ekonomikoan, finantzarioan, merkataritzan... bideratzen du, lehengaiak eta lidergo ekonomikoa eta politikoa eskuratzearen truke. Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrikako herrialdeek osatzen duten BRICS elkar-tea, garapen bideko herrialdeen arteko merkataritza eta inbertsio elkartrukeetarako funtsezko eragile bihurtzeko bidean da. Industrian eta arlo teknologikoan bistakoa den Txinaren bultzada ekonomikoak garapen bideko herrialdeen artean erreferentziatzeko lidergo posizioa eskaintzen dio, baita Asian bertan ere Japoniaren aurretik. ●